



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko maiatzaren 4a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere gertutasuna eta konpromisoa helarazi nahi baitizkie nafarrei, Covid-19 birusaren pandemia globalak eragindako giza, osasun, gizarte nahiz ekonomia krisia bizi dugun une honetan. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aldaketa (3. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—4/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko (4. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere gertutasuna eta konpromisoa helarazi nahi baitizkie nafarrei, Covid-19 birusaren pandemia globalak eragindako giza, osasun, gizarte nahiz ekonomia krisia bizi dugun une honetan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko apirilaren 29an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak txera eta doluminak helarazi nahi dizkie, errespetu guzti-guztiaz, Covid-19 birusaren infekzioak eragindako nahiz okertutako prozesuen ondorioz hil diren pertsonen senitartekoei eta lagunei, atsekabe hori, sarritan, are larriagoa izan baita beren gertukoei ezin izan dietelako agurrik egin naturaltasunez.

Nafarroako Parlamentuak, halaber, berretsi egin nahi du pandemia honen aurka borrokatzen jarraitzeko konpromisoa; hartara, pandemia honek osasunaren, gizartearen nahiz ekonomiaren arloan eragin dituen ondorio suntsizailerak arintzeko hartu beharreko ekintza parlamentario eta legegintza-neurri guztiak har daitezten sustatuko du, bidean inor ere gera ez dadin saiatzeko.

Nafarroako Parlamentuak zinez eskertu nahi du sektore publiko nahiz pribatuko profesional guztien lan nekagaitz eta ausarta, lehen lerrotik lagundu baitute krisi honen ondorioen aurka

borrokatzen: gaixoen osasuna zainduz, kolektibo ahulenekin lan eginez, hornidurak mantenduz, oinarriko ondasunak eskura ahal izatea bermatuz eta herritarrak babestuz, besteak beste.

Azkenik, Nafarroako Parlamentuak goretzi egin nahi du nafarrek egindako ahalegin kolektiboa eta erakutsitako arduraz zibikoa; izan ere, gizarteak duen hoberena erakutsi du modu boluntarioan eta desinteresatuan sortu diren elkartasun-erakustaldi eta - ekimenetan, bai eta arratsaldero, erantzun laudagarria emanez, txaloak jotzera atera denean ere.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak, Foru Gobernuarekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera, herritarrei dei egiten die hiru minutuko isilunea gorde dezaten igande honetan, eguerdiko 12etan, pandemia honen biktimen gomutan eta haien memoriari ohore egiteko” (10-20/DEC-00026).

Iruñean, 2020ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aldaketa

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2020ko apirilaren 3ko Ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda. Ebazpen hori 2020ko apirilaren 7ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratu zen.

Apirilaren 21ean, posta arruntaren bidez, lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskabide bat jaso da, onartuta izateko baldintzak betetzen dituena. 2020ko martxoaren 10ean Lehendakari-tzako Departamentuaren Erregistro Orokorrean aurkeztutako eskabidea da.

Beraz, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda aldatzea. Hona zerrenda berria:

a) Onartuak:

Arana Marquina, Cristina
Ayesa Gorraiz, Irene
Esquiroz Villanueva, María Gloria
Foronda Ortiz, Inmaculada
García Fuentes, M^a Dolores
Hernández Asirón, Mercedes

Hernández Pérez, Ana Pilar
Hualde Aramburu, M^a José
Lorente Gracia, M^a Isabel
Sánchez Borrachero, M^a José

b) Baztertuak:

Alzueta Goyeneche, Miriam Heidi ⁽¹⁾
Campión Larumbe, Marta ⁽¹⁾
Carrique Iribarne, M^a Dolores ⁽²⁾
García Andueza, Aintzane ⁽²⁾

Baztertzeko arrazoiak:

- (1) *Deialdiko 2.1 a) oinarrian ezarritako baldintza ez egiaztatzeagatik.*
(2) *Nafarroako Parlamentuko edo Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko funtzionario ez izateagatik.*

Bigarrena. Xedatzea, deialdiko 4. oinarriko 2. apartatuan ezarritakoarekin bat, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahalko dituztela behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, haiek zuzendu, zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 30ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

4/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak 4/2020 Foru Lege-dekretua onetsi du, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Foru Lege-dekretua 2020ko maiatzaren 4ko 91. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri dio, baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2020ko maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran eginen direla apirilaren 29ko 4/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. Foru Lege-dekretu horrek premiazko neurriak onesten ditu koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. (10-20/DLF-00004).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2020ko apirilaren 29an.

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

4/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratu zen Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Geroa, martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak eta apirilaren 24ko 492/2020 Errege Dekretuak aldatu zuten lehenbiziko arau hura, eta martxoaren 27ko 476/2020 Errege Dekretuak, apirilaren 10eko 487/2020 Errege Dekretuak eta apirilaren 24ko 492/2020 Errege Dekretuak luzatu zuten alarma egoera. Luzapenak eginda, alarma egoeraren indarraldia 2020ko maiatzaren 10eko 00:00ak artekoa dela ezarri da.

Aipatutako 463/2020 Errege Dekretuak 4. artikuluan ezartzen duenez, alarma egoeraren ondorioetarako eskumena duen agintaritzak Gobernu izanen da, eta, zein bere ardura eremuan, agintaritzak eskudun delegatuak izanen dira, halaber, ministerio hauetako titularrak: Osasuna, Defentsa, Barne Arazoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Agenda Urbanoa. Hala eta guztiz ere, errege dekretu horren 6. artikuluekin bat, administrazio bakoitzak eskumenak ditu, indarreko legeriak bere zerbitzuen ohiko kudeaketarako emandakoak, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, betiere agintaritzak eskudunen zuzeneko aginduen esparruan.

Covid-19 koronabirusaren bilakaerak sortu duen aparteko egoeraren ondorioz, premiazko zenbait neurri berezi hartu behar izan dira. Horretarako, martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuaren, martxoaren 25eko 2/2020 Foru Lege-dekretuaren eta apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez, premiazko neurri batzuk onetsi ziren osasun krisiak eragindako inpaktuari

aurre egiteko. Nafarroako Parlamentuak 2020ko martxoaren 27an egindako Osoko Bilkurak erabaki zuen lehenbiziko bi foru lege-dekretuak baliozkotzea eta foru lege proiektu gisa tramitatzea presako prozeduraren bidez. Tramitazio horren ondorioz onetsi ziren, batetik, apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legea, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko, eta, bestetik, apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legea, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Era berean, Nafarroako Parlamentuak 2020ko apirilaren 21ean egindako Osoko Bilkurak erabaki zuen apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotzea.

Ohiz kanpoko premia bereziko inguruabarrak ikusita, beharrezkoa da laugarren neurri sorta ezartzea, foru lege-dekretu honetan jaso direnak, hain zuzen.

Testuinguru honetan, ekonomiaren arloan erabateko lehentasuna du ekoizpen eta gizarte sareari babesa eta sostengua emateak, inpaktua ahal den txikiena izan dadin eta, behin osasun alarma bukatuta, jarduera lehenbailehen susper dadin. Hori guztia alde batera utzi gabe, ordea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ere krisi honi aurre egiteko nahitaez behar duen finantzaketa.

Foru lege-dekretu honen I. tituluan zerga arloko araudia egokitzen da egungo egoerara, zergapekoaren jarduera ekonomikoaren zuzeneko adierazleetan oinarrituta ez dauden ordainketa betebeharrak murriztuz, kalkulatzeko baitira jarduera ekonomiko hori garatzeko ahalmena neurtzeko zeharkako unitateen arabera. Ahalmen hori nabarmen desberdina da orain, kuotak ezarri zirenean hasiera batean kontuan hartu zenarekin alderatuta, eta foru lege-dekretu honen xedea da, hain zuzen ere, egungo egoerara egokitzea.

Horrela, koherentea da murriztea jokoaren gaineko tributu batzuen kuota, jolas-makinen ustiapenari dagokionez, makina horiek jarrita dauden establezimenduen itxiera dela eta. Ildo berean, saltoki handien gaineko zergaren kuota murrizten da, 2020ko zergaldikoa, alarma egoeraren deklarazioa dela eta, saltokia itxita egon den denboraren proportzioan.

Bestalde, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren likidazioa aldizkakoa ez denez, bi zergak aurkeztu eta diru-sarrera egiteko epeen kontaketarako ez da

kontuan hartuko 2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 30era bitarteko aldia.

Horrez gain, neurri batzuk ezartzen dira, zenbait onura fiskal lortzeko bete beharreko epe eta denborei dagozkienak. Alde batetik, 2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 30era bitarteko epea ez da kontuan hartuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik egiten den salbuespenari heltzeko epearen kontaketarako.

Bestetik, urtebete luzatzen da Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legean ohiz kanpoko etekinak berrinbertitzeagatik egiten den salbuespenari heltzeko ezartzen den epea, berrinbertitzeko epea 2020ko zergaldian bukatzen zaien zergadunen kasurako; 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzen da, berriz, Inbertsioetarako Erreserba Berezirako zenbatekoa gauzatzeko epea, gauzatzeko epea 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitarte bukatzen zaien zergadunen kasurako.

Era berean, desagertzen da 2020ko zergaldian batez besteko plantillak mantentzeko baldintza, enplegua sortzeagatik kenkaria, sozietateen gaineko zergan arautua, 2018an eta 2019an aplikatzeko bete beharrekoa. Horrela, ez da eskatuko 2018an eta/edo 2019an sortutako kenkaria erregularizatzea enplegua ez bada mantendu 2020an koronabirusak eragindako krisi ekonomikoagatik.

Foru lege-dekretu honen II. tituluan neurri berezi bat jasotzen da, Kooperatiben Hezkuntza eta Sustapen Funtsaren erabilera aldi baterako malgutzekoa, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko helburuarekin.

Ekonomiari eta enpleguari sostengua emateko presako neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-dekretuak 13. artikuluan ezartzen duenez, kooperatibek, salbuespen gisa eta aldi mugatu baterako, Hezkuntza eta Sustapen Funtsa erabiltzen ahalko dute, osorik nahiz zati batean, Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioak geldiarazi edo arintzen laguntzen duen edozein jardueratarako.

Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeak 51. artikuluan arautzen du kooperatiba guztietan Hezkuntza eta Sustapen Funtsa eratu behar dela, zeina banaezina eta enbargaezina baita, eta soilik erabili beharrekoa bertan ezarritako helburuetarako.

Osasun krisiaren egoera honetan, ekonomia-aren doikuntza eta enpleguaren babesa errazteko neurri gisa, komeni da presako eta ohiz kanpoko beste neurri bat hartzea, Nafarroako kooperatiben

Hezkuntza eta Sustapen Funtzaren erabilera aldi baterako malgutzeko, hau da, Nafarroako Koope-
ratiben Erregistroan inskribatutako kooperatibena,
halako moduan non, alarma egoeraren indarral-
dian eta 2020ko abenduaren 31 arte funts hori,
osorik nahiz zati batean, finantza baliabide gisa
erabili ahal izanen baita, kooperatibak likidezia
izan dezan, funtzionamendurako behar izanez
gero edo Covid-19aren osasun krisia geldiarazten
edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edo-
zein jarduera betetzeko, bai bere ekintzen bidez,
bai beste entitate publiko edo pribatu batzuei
dohaintzak eginez.

Beste alde batetik, lehenengo xedapen gehiga-
rriaren bidez aldatzen da Koronabirusaren (Covid-
19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre
egiteko premia neurriak onesten dituen apirilaren
6ko 7/2020 Foru Legearen 13.4 artikulua,
2020ko maiatzaren 30era arte luzatzearen aintzat
hartuko ez den epea ondorio hauetarako: zerga
prozeduren gehieneko epea, alegazioak aurkez-
tea, errekerimenduei erantzutea eta errekurtsio
edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak
aurkeztea. 2020ko martxoaren 14tik maiatzaren
30era bitarteko epea ere ez da aintzat hartuko
preskripzio edo iraungitze epeen ondorioetarako.

Bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan
Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen
apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-dekretuare-
kin harmonizatzen da –horren bidez presako neu-
rri osagarriak hartu ziren ekonomiari eta enplegua-
ri sostengua emateko–, bat etorritz Estatuaren eta
Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hit-
zarmen Ekonomikoa onetsi zuen abenduaren
26ko 28/1990 Legearen 32. artikuluan xedatutako-
arekin.

Lehenbizi, osasun-materialaren hornidura
azkar eta modu eraginkorrean egin ahal izateko,
2020ko uztailaren 31ra arte, balio erantsiaren gai-
neko zergari dagokionez, ehuneko zero ko zerga-
tasa ezartzen da horrelako ondasunen barne-
entregetarako, inportazioetarako eta Europar
Batasunaren barruko eskurapenentarako, har-
tzaileak entitate publikoak, irabazi-asmorik gabeko
erakundeak edo ospitaleak baldin badira. Zerga
politikaren arloko neurri honek ohiz kanpoko egoe-
ra honetan izanen du eragina, eta helburua da
indarrean dagoen bitartean ondorio nabarmenak
lortzea, baina, betiere, balio erantsiaren gaineko
zergaren tasen egituran betiko finkatzeko asmorik
gabe. Subjektu pasiboen fakturazio sistemak ego-
kitu behar ez izateko, eragiketa horiek, fakturretan,
eragiketa salbuetsi gisa dokumentatutako dira.
Dena dela, ehuneko zero ko zerga-tasa aplikatuta
ere, horrek ez du mugatzen eragiketa egiten duen

subjektu pasiboak jasandako balio erantsiaren
gaineko zergan kenkaria egiteko eskubidea.

Bigarrenik, kontuan hartuta konfinamenduak
berekin ekarri duela herritarrek kultur eta informa-
zio produktu gehiago eskatzea, liburu, egunkari
eta aldizkari digitalen sarbidea erraztearren, haiei
aplikatu beharreko zerga-tasa ehuneko 4ra
murrizten da, eta, horrekin batera, kendu egiten
da, aplikatu beharreko zerga-tasari dagokionez,
liburu fisikoaren eta liburu elektronikoaren artean
zegoen diskriminazioa.

Laugarren xedapen gehigarriaren bidez,
gaiak ematen zaio tributu arloan eskumena
duen departamentuko titularrari planifikazio fiska-
lerako mugaz gaindiko baliabideen aitorpena egi-
teko epeak ezar dituzan, alegia, Tributuari buruzko
abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren
hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian
aipatzen direnena, betiere, aitorpena egiteko bete-
beharra 2018ko ekainaren 25etik 2020ko aben-
duaren 31ra arte sortu den kasuetan.

Bosgarren xedapen gehigarriaren bidez aldatu
egiten da Koronabirusaren (Covid-19) osasun kri-
siak eragindako inpaktuari aurre egiteko presako
neurriak onesten dituen apirilaren 15eko 3/2020
Foru Lege-dekretuaren 2. artikulua, batetik, argi-
tzeiko zein baldintza bete beharko dituzten sasoi-
ko produkzioetan aritzen diren nekazaritzako langile
autonomoek foru lege-dekretu horretan ezarritako
ohiz kanpoko zuzeneko laguntzak jasotzeko esku-
bidea izateko, eta, bestetik, laguntza horiek jaso-
tzeko eskatzen diren baldintzei buruzko alderdi
jakin batzuk zehazteko.

Seigarren xedapen gehigarriaren bidez aldatu
egiten da Koronabirusaren osasun krisiak eragin-
dako inpaktuari aurre egiteko presako neurriak
onesten dituen apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legea-
ren 3. artikuluan 1. apartatua, argitzearen
laguntzak ematen dituen organoari dagokiola,
aurretiazko inolako baimenik behar izan gabe, ira-
bazi-asmorik gabeko entitateei edo federazioei,
konfederazioei nahiz horien elkarteei ematen zaiz-
kien dirulaguntzetarako baldintzak aldatzea, par-
tez edo guztiz ezinezkoa bada diruz lagundutako
jarduerak gauzatzea edo zerbitzuak ematea
Covid-19aren ondorioz edo administrazio publiko-
ek haren aurka hartutako neurrien ondorioz, betie-
re, gauzatzea ezinezkoa izan den zatiari dagokio-
nez, hots, jarduera gauzatzea edo zerbitzua
ematea galarazten duen izatezko egoera gerta-
tzen denetik hasi eta jarduera gauzatzen edo
zerbitzua ematen berriz has daitekeen unera arte.

Azkenik, apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-
dekretuaren bidez, presako neurri batzuk hartu

ziren koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Horri dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoen eta haren foru-sektore publiko instituzionalaren kudeaketa eraginkorra egiteko neurri berezien artean, 7. artikuluan, gaikuntza eman zitzaion Osasuneko kontseilariari hirugarren adinekoen egoitzetarako koordinazio asistentzial exekutiboaren arduraduna izendatzeko, eta, orobat, egokitzen diren profesionalen koordinazio lan horietan laguntzeko eginkizunak agintzeko.

Artikulu horretan gaikuntza ematen zitzaion Osasuneko kontseilariari koordinazio asistentzial exekutiboaren arduraduna izendatzeko, bakar-bakarrik, hirugarren adineko pertsonen egoitzetako osasun laguntzarako. Dena den, esperientziak erakutsi du gaikuntza hori zabaldu behar dela desgaitasun fisikoa zein psikikoa duten pertsonen egoitzetara, zentro psikogeriatrikoetara eta horiekin parekatutako zentroetara, horietan ere osasun laguntza ematen baitzaie egoiliarrei, eta, hortaz, Covid-19arekin kutsatzeko arrisku bera dago, hirugarren adinekoen arloan bezala. Izan ere, horiek guztiak egoitza soziosanitarioak dira.

Horregatik, egoitza soziosanitarioetan pandemia hobeki kudeatzeko, zazpigarren xedapen gehigarriaren bidez artikulu hori aldatzen da, esandakoaren ildotik.

Honaino azaldu diren arrazoiek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, behar-beharrezkoa baita aipatu neurriak berehala hartzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bederatziko apirilaren hogeita bederatzian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,.

DEKRETATZEN DUT:.

ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege-dekretu honen xedea da neurri bereziak hartzea koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari erantzuteko.

I TITULUA

Neurri bereziak tributuen esparruan

2. artikulua. Jokoaren gaineko tributua.

Nafarroako Foru Komunitatean Jokoaren gaineko Tributua arautzen dituen abenduaren 28ko 27/216 Foru Legearen 9.2 artikulua araberak B motakoak diren makinak (saria duten jolas-makinak) ustiatze kasuetan, 2020ko bigarren hiruhilekoari dagokion kuota behar den ehunekoan murriztuko da, eta horretarako aintzat hartuko da hiruhileko horretan zenbat denbora egon diren itxita makinak instalatuta dauden establezimenduak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoeragatik.

Aurreko paragrafoan ezarritako murriztapen-ehunekoari ehuneko hogeita puntu erantsiko zaizkio 2020ko lehenengo hiruhilekoan, alarma egoeraren deklarazioa dela kausa, establezimenduak itxita egoteagatik, baina, betiere, %100 gainditu gabe. Kuota nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez den murriztapen-soberakina hurrengo hiruhileko(et)an aplikatuko da.

3. artikulua. Saltoki handien gaineko zerga.

Saltoki handien gaineko zergaren kuota, 2020ko zergaldiari dagokiona, behar den ehunekoan murriztuko da, eta horretarako aintzat hartuko da zenbat denbora egon den itxita saltokia martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoeragatik.

Aurreko paragrafoan ezarritako murrizketa-ehunekoak ez zaio aplikatuko, alarma egoeraren deklarazioa eginda ere, jendearentzat irekita egon den azalerari dagokion zerga kuotaren zatia.

4. artikulua. Nola kontatuko den sarrerak egiteko eta aitortzen eta autolikidazioak aurkezteko epea, bai oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari dagokionez, bai ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokienez.

2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 30era bitarteko epea ez da kontuan hartuko Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren Erregelamenduen 37. artikuluan sarrerak eta aurkezpenak egiteko ezarritako epeen ondorioetarako (erregelamendu hori urtarrilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), ez eta Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Erregelamenduen 91. artikuluan sarrerak eta aurkezpenak egiteko ezarritako epeen ondorioetarako ere (erregelamendu hori maiatzaren 17ko 165/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

5. artikulua. Nola kontatuko den ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik egiten den salbuespena aplikatzeko epea.

2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 30ra bitarteko epea ez da kontuan hartuko ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik egiten den salbuespenari heltzeko ezarrita dagoen epea kontatzeko, zeina Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamenduaren 40.4 artikuluan ezarrita baitago (erregelamendu hori maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

6. artikulua. Ohiz kanpoko etekinak berrinbertitzeko eta Inbertsioetarako Erreserba Berezia gauzatzeko epeak luzatzea.

Ondare-elementuen kostu bidezko eskualdake-ta batean lortutako dirua berrinbertitzeko epea, zeina Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 37.1. artikuluan ezarrita baitago, urtebete luzatzen da, baina, bakar-bakarrik, berrinbertitzeko epea 2020ko zergaldian bukatzen zaien zergadunentzat.

Inbertsioetarako Erreserba Berezia gauzatzeko epea, zeina arautua baitago 26/2016 Foru Legearen 45.2 artikulua lehengo paragrafoan, 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzen da, baina, bakar-bakarrik, gauzatzeko epea 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitarte bukatzen zaien zergadunentzat.

7. artikulua. Enplegua sortzeagatikoen kenkaria, 2018an eta 2019an sortua.

Enplegua sortzeagatikoen kenkariari dagokionez, zeina arautua baitago Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 66. artikuluan, kenkaria 2018ko zergaldian sortu bada, ez da bete beharko kenkaria egiteko eskubidea eman zuten batez besteko plantillak mantentzeko baldintza. Nolanahi ere, esandakoa aplikatuko da kenkaria sortu zen zergaldia bukatu eta ondoko hamabi hilabeteko bigarren epean, eta, bakar-bakarrik, batez besteko plantilla ez mantentzeko arrazoia izan baldin bada Covid-19ak eragindako osasun krisiaren egoera.

Era berean, enplegua sortzeagatikoen kenkaria 2019ko zergaldian sortu bada, ez da bete beharko kenkaria egiteko eskubidea eman zuten batez besteko plantillak mantentzeko baldintza, baina, betiere, kenkaria sortu zen zergaldia bukatu eta ondoko hamabi hilabeteko lehengo epean aplikatuko da.

II. TITULUA

Neurri berezia, Kooperatiben Hezkuntza eta Sustapen Funtsaren erabilera aldi baterako malgutzekoa, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko helburuarekin

8. artikulua. Aldi baterako malgutzea Kooperatiben Hezkuntza eta Sustapen Funtsaren erabilera.

1. Alarma egoerak, Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege-dekretuaren bidez deklaraturakoa, eta haren luzapenek indarrean irauten duten bitartean eta 2020ko abenduaren 31ra bitarte, helburu hauetarako erabiltzen ahalko da, guztiz edo zati batean, Kooperatiben Hezkuntza eta Sustapen Funtsa, Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legearen 51. artikuluan arautzen dena:

a) Finantza baliabide gisa, likidezia emateko kooperatibari hark behar badu bere funtzionamendurako.

Ondorio horietarako, kooperatibak itzuli beharko du helburu horretarako erabiltzen den Kooperatiben Hezkuntza eta Sustapen Funtsa, urte bakoitzean sortzen diren erabilera libreko emaitzen %30ekin, harik eta berdintzen den arte salbuespeneko aplikazioa erabakitzen denean funtsak zuen zenbatekoa, eta gehienez ere, 10 urteko epean.

b) Covid-19aren osasun krisia edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jardueratan, dela ekintza berekien bidez, dela beste entitate publiko edo pribatuei dohaintzak eginez.

2. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma egoerak edo haren luzapenek irauten duten bitartean, Zuzendaritza Kontseiluak bere gain hartuko du Hezkuntza eta Sustapen Funtsa aplikatzea onesteko eskumena, 1. apartatuan aurreikusi bezala, sozietate kooperatiboen Batzar Nagusia biltzeko deialdia egitea ezinezkoa denean, baliabide birtualen bidez egiteko behar adina baliabiderik edo bitarteko egokitik ez izateagatik.

Zuzendaritza Kontseiluak eskumen hori salbuespenez bere gain hartzea 2020ko abenduaren 31ra arte luzatuko da, baldin eta, kooperatibako bazkideen osasuna babestearren Batzar Nagusia baliabide birtualen bidez egin behar bada baina egiterik ez badago behar adina baliabiderik edo bitarteko egokitik ez izateagatik.

3. Ondorio horietarako soilik, ez da aplikagarria izanen Nafarroako Kooperatiben Zerga-araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 9.3 eta 16.4 artikuluetan xedaturakoa. Hortaz, arti-

kulu honen 1. apartatuko a) letraren arabera aplikatu den Kooperatiben Hezkuntza eta Sustapen Funtsa ez da kooperatibaren diru-sarreratzat hartuko, eta ez du ekarriko zerga kontuetarako babesturiko kooperatibaren izaera galtzea.

Lehen xedapen gehigarria. Aldatzea apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legea, premiazo neurriak onesten dituena koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazo neurriak onetsi zituen apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legea; haren 13.4 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“4. 2020ko martxoaren 14tik 2020ko maiatzaren 30era bitarte bere horretan mantenduko dira tributu itzulketen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek aitortutako bestelako ordainketen ofiziozko konpentsazioak, eta konpentsazio horien ondoriozko premiamendu probidentziak emanen dira”.

Bigarren xedapen gehigarria. Aldatzea Balio erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2020ko apirilaren 23tik aurrerako ondorioekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 37.Bi.1.Bigarrena artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Bigarrena. Liburuak, egunkariak eta aldizkariak, bide elektronikotik ematen diren zerbitzutat hartzen direnean ere, bakarrik edo nagusiki publizitaterik ez dutenak eta osorik edo gehienbat bideoaren edo entzuteko musikaren edukiak ez dituztenak, baita haiekin batera prezio bakar batean ematen diren elementu osagarriak ere.

Zenbaki honetan sartuko dira obra exekuzioak, betiere horien ondoko emaitza honakoak erdies-tea baldin bada: liburu, egunkari edo aldizkari bat pleguan edo jarraian, ondasun horien fotolito bat edo horien koadernatzea.

Ondorio horietarako, elementu osagarritzat hartuko dira zinta magnetofonikoak, diskoak, bideokaseteak eta entzutekoak zein bideomagnetikoak diren antzeko euskarriak, liburu, egunkari edo aldizkariarekin unitate funtzionala osatzen dutenak, haien edukia hobetzeko edo osatzeko baliagarri badira eta betiere horiekin saltzen direnak, salbuespen hauekin:

a) Musika obrak soilik daukaten diskoak eta zinta magnetofonikoak, beti ere, horien prezioa horiekin batera entregatzen diren liburu, egunkari edo aldizkariena baino handiagoa denean.

b) Zineko film, programa edo telesaio fikziozko edo musikalak dauzkaten bideokaseteak eta antzeko euskarriak, entzutekoak zein bideomagnetikoak, horien prezioa horiekin batera entregatzen diren liburu, egunkari edo aldizkariena baino handiagoa denean.

c) Aurreko letretan adierazitako euskarrietan edozein baliabideren bitartez grabatutako produktu informatikoak, batez ere beste bide batzuetatik merkaturatzen diren programak edo aplikazioak dauzkatenen.

Ulertuko da liburuek, egunkariak eta aldizkariak nagusiki publizitatea dutela, editoreari diru-sarreraren ehuneko 90 baino gehiago bide horretatik ematen badiote.

Zenbaki honetan sartzen dira partiturak, mapak eta marrazketa kaierak, salbu eta gai eta tresna elektronikoak”.

Hirugarren xedapen gehigarria. Balio erantsiaren gaineko zerga-tasa, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen entrega, inportazio eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan aplikatu beharrekoa.

Ondorioak izanik 2020ko apirilaren 23tik aurrera, eta indarraldia, berriz, 2020ko uztailaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergaren %0ko tasa aplikatuko da foru lege-dekretu honen eranskinean zehaztutako ondasunen entrega, inportazio eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan, baldin eta hartzaileak eskubide publikoko entitateak, klinikak edo ospitaleak badira, edo izaera sozialeko entitate pribatuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.3 artikulua aipatzen dituenak. Eragiketa horiek, fakturretan, eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira.

Laugarren xedapen gehigarria. Informazio-betebeharra planifikazio fiskalerako baliabide batzuetan.

Tributu arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen dituen epeetan egingen da planifikazio fiskalerako mugaz gaindiko baliabideen aitortpena, alegia, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian aipatzen direnena, betiere, aitortpena egiteko betebeharra 2018ko ekainaren 25etik 2020ko abenduaren 31ra arte sortu den kasuetan.

Bosgarren xedapen gehigarria. Aldatzea apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuaren 2. artikulua. Foru lege-dekretu horren bidez premiazo neurriak onetsi ziren koronabirusaren (Covid-

19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez premiazko neurriak onetsi ziren koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko; haren 2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. artikulua. Laguntzak langile autonomoen zat.

1. Arloko organo eskudunak langile autonomo bati aitortu dionean jardunari uzteagatiko prestazio berezia, Covid-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri bereziei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 17. artikuluan zehazten dena, langile autonomoak eskubidea izanen du 2.200 euroko laguntza zuzen eta berezia jasotzeko, baldin eta horretarako eskubidea ematen duten baldintza hauek betetzen baditu:

a) Zerga-egoitza Nafarroan izatea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako eta Nafarroako Foru Komunitatean alta emanik egotea ekonomia-jardueren gaineko zergan martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alar-ma egoera deklaratu zuen egunean.

b) Nafarroako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren kuoten ordainketa egunean izatea.

c) 2018ko ekitaldiko ondarearen gaineko zergan tributatzeko betebeharrak ez izatea, ordaindu beharreko kuotaren emaitzarekin.

d) Langile autonomoaren familia-unitateko kide guztien etekin garbier batura ez izatea, eskaera egin aurreko hilabete naturalean, zenbateko hauek baino handiagoa:

I) Oro har, muga izanen da hileko Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (hemendik aurrera OAEAPa) halako lau.

II) Muga hori OAEAPa 0,1ekin biderkatuta handituko da familia-unitatearen kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko. Guraso bakarreko familia-unitateen kasuan, 0,15ekin biderkatuko OAEAPa haren kargura dagoen seme edo alaba bakoitzak dakarren igoera kalkulatzeko.

III) Muga hori OAEAPa 0,1ekin biderkatuta handituko da familia-unitateko kide den eta 65 urte baino gehiago dituen pertsona bakoitzeko.

IV) Familia-unitateko kideren batek deklaraturik baldin badu %33ko edo goragoko desgaitasuna, mendekotasun egoera edo lanean aritzeko modu iraunkorrean ezgaitzen duen gaixotasun frogatua,

aurreikusten den muga OAEAPa halako bost izanen da, ezertan galarazi gabe haren kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko metatzen diren igoerak.

e) Alta emanda egotea autonomo gisa Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidean eta ekonomia-jardueren gaineko zergan Nafarroako Foru Komunitatean hamabi hilabetez, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 17. artikuluan zehaztutako prestazioa bukatzen denetik aurrera. Alta emanda egoteko betebeharrak hori betetzen ez bada, hartzaileak itzuli beharko du ez-betetzeak iraun duen aldiari dagokion laguntzaren zati proportzionala.

2. Langile autonomo batek heldu ez dionean jardunari uzteagatiko prestazio bereziari, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 17. artikuluan zehaztutakoari, eskubidea izanen du 700 euroko laguntza zuzena jasotzeko, baldin eta, aurreko 1. apartatuko a), b), c) eta d) letretan ezarritakoaz gain, baldintza hauek ere betetzen baditu:

a) Autonomo moduan altan segitzea Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidean edo Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitate batean eta Nafarroako Foru Komunitateko ekonomia-jardueren gaineko zergan, alarma egoera deklaratu zen egunetik hasita laguntza-eskaera egiten den egunera arte.

b) Jardunari utzi ez izana, baina laguntza eskatu aurreko hilabete naturaleko fakturazioa gutxienez %30 murriztu bada aurreko seihileko naturaleko batez besteko fakturazioaren aldean.

Nekazaritza arloan beren kontura ari diren langileendako sistema berezian sartuta dauden nekazaritzako langile autonomoei dagokienez, sasoiko produkzioetan aritzen badira, prestazioa eskatu aurreko produkzio-kanpainaren hilabeteetan batez besteko fakturazioa gutxienez %30 murriztu denean aurreko urteko kanpainako hilabete berberetako fakturazioaren aldean.

Ekonomia-jardueren sailkapen nazionalako (EJSN) 2009, 5912, 5915, 5916, 5920 eta 9001etik 9004 bitarteko kodeak (bi horiek barne) dituzten jarduerak garatzen dituzten langile autonomoei dagokienez, prestazioa eskatu aurreko hilabete naturalean fakturazioa gutxienez %30 murriztu denean aurreko 12 hilabeteetako fakturazioaren aldean.

3. Aurreko 2. apartatuko laguntza zuzena 800 eurokoa izanen da baldin eta langile autonomoaren familia-unitateko kide guztien etekin garbier

baturak ez baditu gainditzen zenbateko hauek, eskaera egin aurreko hilabete naturalean:

I) Oro har, muga izanen da hileko Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (hemendik aurrera OAEAPa) halako hiru.

II) Muga hori OAEAPa 0,1ekin biderkatuta handituko da familia-unitatearen kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko. Guraso bakarreko familia-unitateen kasuan, 0,15ekin biderkatuko OAEAPa haren kargura dagoen seme edo alaba bakoitzak dakarren igoera kalkulatzeko.

III) Muga hori OAEAPa 0,1ekin biderkatuta handituko da familia-unitateko kide den eta 65 urte baino gehiago dituen pertsona bakoitzeko.

IV) Familia-unitateko kideren batek deklaraturik baldin badu %33ko edo goragoko desgaitasuna, mendekotasun egoera edo lanean aritzeko modu iraunkorrean ezgaitzen duen gaixotasun frogatua, aurreikusten den muga OAEAPa halako lau izanen da, ezertan galarazi gabe haren kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko metatzen diren igoerak.

Apartatu honetan eta 1. apartatuko e) letran ezarritakoaren ondorioetarako, kontuan hartuko dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako etekin garbien eta familia-unitatearen kontzeptuak.

4. Aurreko apartatuetan ezarritako laguntzaren onuradun izan daitezke ekonomia-jardueren gaineko zergari atxiki gabeko jarduerak (nekezarritza, basogintza, abeltzaintza independentea, abeltzaintza integratua eta merkataritzako ordezkariak) Nafarroan egiten dituzten langile autonomoak, baldin eta apartatu horietan eskatutako gainerako betebeharrak betetzen badituzte.

5. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide-langile batek aukeratu duenean norberaren konturako langile gisa sailkatuta gelditzea kasuan kasuko araubide berezian, hark ere eskubidea izanen du lehenengo apartatuan zehaztutako laguntza jasotzeko, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen baditu, salbu ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egoteko betebeharra, kooperatibista baita. Era berean, honako hauek ere izan daitezke laguntza honen onuradun, baldintza berberetan: autonomo sozietarioak edo nortasun juridikorik gabeko entitateetako edo merkataritza sozietateetako langileak.

6. Aurreko apartatuetan ezarritako laguntza zuzen eta bereziak Zuzenbide Publikoari lotutako prestazio ekonomikoak izanen dira, eta haien

kudeaketa Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari dagokio.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari laguntza hau emateko prozedura foru agindu bidez garatzeko.

7. Alarma egoera zein hilabetetan bukatzen den, hurrengo hilabete azken egunera arte eska daiteke artikulua honetan arautzen diren laguntza zuzen eta bereziak aitortzeko. Eskaera hori modu telematikoa aurkeztu beharko da. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak, aurkeztutako eskaeraren eta agirien arabera, halakorik bada, bidezko ebazpena emanen du, eskubidea baiesteko edo ezesteko, eskaera aurkeztu zenetik hasita 3 hilabete epean. Laguntzak ordaindu ondorengo edozein unetan egiaztatzen bada onuradunak ez dituela baldintzak betetzen, oker jasotako dirua itzultzeko prozedura tramitatuko da.

8. Aurreko 2. apartatuko b) letran aipatzen den fakturazio murrizketa frogatzeko, hori justifikatzen duen kontabilitate-informazioa aurkeztuko da, dela egindako eta jasotako fakturen erregistro-liburuaren kopiaren bidez, dela diru-sarreraren eta gastuen eguneroko-liburuaren kopiaren bidez, dela salmenten eta diru-sarreraren erregistro-liburuaren kopiaren bidez, dela salmenten eta diru-sarreraren erregistro-liburuko erosketen eta gastuen liburuaren kopiaren bidez, edo erosketen eta gastuen liburuaren kopiaren bidez.

Langile autonomo bat beharturik ez dagoenean jardunaren bolumena frogatzen duten liburuak eramatera, zuzenbidez onartutako beste edozein frogabide erabiliz frogatu beharko du gutxienez eskatzen den %30eko murrizketa izan duela.

Aurreko apartatuetan eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen direla frogatzeko, zuzenbidez onartutako beste edozein frogabide erabili beharko da.

Eskaerarekin batera zinpeko aitorten bat aurkeztu beharko da, non jasoko baita betetzen direla prestazio horretarako eskubidea ematen duten baldintza guztiak.

9. Aurreko apartatuetan ezarritako laguntza zuzen eta bereziak bateragarriak dira xede bereko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatuetatik edo erregioko, nazioko, Europar Batasuneko nahiz nazioarteko erakundeetatik etorrira ere.

10. Aurreko apartatuetan ezarritako dirulaguntzak oker jaso dituztenak beharturik izanen dira

haien zenbatekoa itzultzera. Itzulketak arau hauen mende egonen dira:

a) Laguntza horien kobrantzarako aplikatuko da Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen II. kapituluko 3. atalean ezarritakoa.

b) Laguntza eman duen organoak berak emanen du hura itzularazteko ebazpena. Aurretik behar den espedientea tramitatuko da eta bertan, zentro kudeatzailearen proposamen arrazoituarekin batera, behar diren txostenak eta frogak bilduko dira, bai eta onuradunaren alegazioak ere, halakorik badago. Prozedura amaitzeko ebazpena eman eta jakinarazteko epea hamabi hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epe hori iraganik, dirua itzultzeko prozedura iraungitatz joko da.

c) Prozedura amaitzeko ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio. Diru-sarrera non, nola eta noiz egin behar duen adieraziko zaio eta, orobat, ohartaraziko zaio itzulketa ezarritako epean egiten ez badu premiamendu bideari hasiera emanen zaiola”.

Seigarren xedapen gehigarria. Aldatzea apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legearen 3. artikulua 1. apartatua. Foru lege horren bidez premiazko neurriak onetsi ziren koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onetsi zituen apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legearen 3. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Aldatzen ahalko dira irabazi-asmorik gabeko entitateei edo federazioei, konfederazioei nahiz horien elkarteei dirulaguntzak emateko baldintzak, partez edo guztiz ezinezkoa bada diruz lagundutako jarduerak gauzatzea edo zerbitzuak ematea, Covid-19aren ondorioz edo administrazio publikoek haren aurka hartutako neurrien ondorioz. Gauzatu ezin den zatia aldatuko da, jarduera betetzea edo zerbitzua ematea galarazten duen izatezko egoera gertatzen denetik betetzea edo ematea berriz has daitekeen unera arte.

Edonola ere, bermatu eginen da Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako dirulaguntzak osorik jasotzen dituztela entitate horiek; horretarako, egokitu eginen dira dirulaguntzen deialdiak edo emakidak. Halaber, alarma egoerak dirauen bitartean ahal den neurrian malgutuko dira arreta presentzialerako eta funtzionamenduko baldintzak”.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Aldatzea apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuaren 7. artikulua. Foru lege-dekretu horren bidez premiazko neurriak onetsi ziren koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onetsi zituen apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuaren 7. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“7. artikulua. Osasun laguntza emateko antolakuntza neurriak hirugarren adinekoen egoitzetan, desgaitasuna dutenen egoitzetan, zentro psikogeriatrikoetan eta pareko zentroetan.

Gaikuntza ematen zaio Osasuneko kontseilariari izendatzeko koordinazio asistentzial exekutiboaren arduraduna hirugarren adinekoen egoitzetarako, desgaitasuna dutenen egoitzetarako, zentro psikogeriatrikoetarako eta bidezkotzat jotzen diren pareko zentroetarako, Osasun Departamentuak proposaturik, bai eta egokitatz jotzen diren profesionalei koordinazio lanetan laguntzeko eginkizunak agintzeko ere”.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzen diren arauak.

Indarrak gabe uzten da Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren seigarren xedapen iragankorra.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatua ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamendu bidez garatzea eta betearaztea.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio departamentuetako titularrei ere, zeinek bere eskumenen eremuan, behar adina xedapen eman ditzaten, foru lege-dekretu honetan ezarrita dagoena garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean sartzea eta indarraldia.

1. Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, eta indarrean egonen da Nafarroako Gobernuak ezartzen duen bitartean badirauela hura onestea ekarri duen egoera bereziak.

2. Halaber, foru lege-dekretu honetan onetsitako neurrien artean iraunaldi zehatza dutenek hura beteko dute.

Iruñean, 2020ko apirilaren 29an.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: María Chivite Navascués.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

ERANSKINA
Hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren ondasunen zerrenda

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskripzioa	NC kodea
1	Gailu medikoak	Zainketa intentsibo eta azpi-intentsiboetarako arnagailuak	ex 9019 20 00
		Haizagailuak (arnasketa artifizialerako tresnak)	ex 9019 20 00
		Oxigenoterapiarako beste tresna batzuk, oxigeno dendak barne	ex 9019 20 00
		Gorputzaz kanpoko mintz bidezko oxigenazioa	ex 9018 90
2	Monitoreak	Parametro anitzeko monitoreak, eramangarriak barne	ex 8528 52 91
			ex 8528 52 99
			ex 8528 52 00
			ex 8528 52 10
3	Ponpak	<ul style="list-style-type: none"> – Kanpo nutriziorako ponpa peristaltikoak – Sendagaien infusiorako ponpak – Hurrupatze ponpak 	ex 9018 90 50
			ex 9018 90 84
			ex 8413 81 00
		Xurgatze ponpak	ex 9018 90 50
4	Hodiak	Hodi endotrakealak	ex 9018 90 60
		Hodi esterilak	ex 9019 20 00
			ex 3917 21 10 a ex 3917 39 00
5	Kaskoak	Aireztapen mekaniko ez-inbaditzaileko CPAP/NIV kaskoak	ex 9019 20 00
6	Aireztapen ez-inbaditzaileko maskarak (NIV)	Aurpegi osoko maskarak eta maskara orononasalak, aireztapen ez-inbaditzaileko	ex 9019 20 00
7	Hurrupatze sistemak/makinak	Hurrupatze sistemak	ex 9019 20 00
		Hurrupatze elektrikoko makinak	ex 9019 20 00 ex 8543 70 90
8	Hezegailuak	Hezegailuak	ex 8415
			ex 8509 80 00
			ex 8479 89 97
9	Laringoskopiaok	Laringoskopiaok	ex 9018 90 20
10	Hornigai mediko suntsikorak	<ul style="list-style-type: none"> – Intubazio kitak – Aitzur laparoskopikoak 	ex 9018 90
		Xiringak, orratzarekin edo gabe	ex 9018 31
		Metalezko orratz tubularrak eta josturetarako orratzak	ex 9018 32
		Orratzak, kateterrak eta kanulak	ex 9018 39
		Sarbide baskularerako kitak	ex 9018 90 84
11	Monitorizazio estazioak Pazienteak monitorizatzeko tresnak – Elektrodiagnostikorako tresnak	Monitorizazioarako estazio zentralak, zainketa intentsiboetarako	ex 9018 90
		<ul style="list-style-type: none"> – Pazienteak monitorizatzeko gailuak – Elektrodiagnostikorako tresnak 	ex 9018 19 10 ex 9018 19 90
12	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria	ex 9018 12 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskripzioa	NC kodea
13	Elektrokardiografoak	Elektrokardiografoak	ex 9018 11 00
14	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak/eskanerrak	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak	ex 9022 12, ex 9022 14 00
15	Maskarak	– Aurpegiko maskarak, oihalezkoak, iragazki aldagarriak edo pieza mekanikoki gabekoak, barne direla maskara kirurgikoak eta ehundu gabeko ehun-materialez fabrikaturiko aurpegiko maskarak, erabili eta botatzekoak. – Aurpegiko maskarak, FFP2 eta FFP3 motakoak	ex 6307 90 10 ex 6307 90 98
		Paperezko maskara kirurgikoak	ex 4818 90 10 ex 4818 90 90
		Gas maskarak, agente biologikoen aurka babesteko iragazki aldagarriak edo pieza mekanikoak dituztenak. Hemen sartzen dira begiak ere babesten dituzten maskarak edo aurpegiko ezkutak.	ex 9020 00 00
16	Eskularruak	Plastikozko eskularruak	ex 3926 20 00
		Gomazko eskularru kirurgikoak	4015 11 00
		Gomazko beste eskularru batzuk	ex 4015 19 00
		Puntuzko eskularruak, plastikoz edo gomaz estaliak edo inpregnatuak	ex 6116 10
		Ehunezko eskularruak, puntuzkoak ez direnak	ex 6216 00
17	Aurpegirako babesak	– Aurpegirako babesak, erabili eta botatzekoak nahiz berrerabilgarriak – Aurpegirako babesak, plastikozkoak (begiena baino azalera handiagoa estaltzen dutenak)	ex 3926 20 00 ex 3926 90 97
18	Betaurrekoak	Babeserako betaurreko handiak eta txikiak (googleak)	ex 9004 90 10 ex 9004 90 90
19	Lan jantziak Mantal iragazgaitzak – askotariko motak – tamaina desberdinak Erabilera kirurgiko/medikorako babes jantziak, feltrozkoak edo ehundu gabeko oihalezkoak, barne daudela inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo laminatuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak).	Erabilera anitzeko arropa (barne daudela eskularruak, mitoiak eta eskuzorroak), goma bulkanizatuzkoa	ex 4015 90 00
		Jantziak	ex 3926 20 00
		Arropa eta osagarriak	ex 4818 50 00
		Puntuzko ehunez egindako jantziak, 5903, 5906 edo 5907 partidetakoak	ex 6113 00 10 ex 6113 00 90
		Puntuzko ehunez egindako beste jantzi batzuk	6114
		Erabilera kirurgiko/medikorako jantziak, feltrozkoak edo ehundu gabeko oihalezkoak, izan nahiz ez inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo laminatuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak). Barne daude ehundu gabeko materialezko jantziak («spun-bonded»)	ex 6210 10
		Babeserako beste jantzi batzuk, kautxuztaturiko ehunez eginikoak, edo inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo laminatuak (59.03, 59.06 edo 59.07 partidetako ehunak)	ex 6210 20 ex 6210 30 ex 6210 40 ex 6210 50
20	Oinetakoen estalkiak/galtzak	Oinetakoen estalkiak/galtzak	ex 3926 90 97 ex 4818 90 ex 6307 90 98

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskripzioa	NC kodea
21	Txanoak	Txano puntadunak	ex 6505 00 30
		Txanoak eta bururako beste babesgarri batzuk, eta edozein materialezko sareak	ex 6505 00 90
		Bestelako txanoak eta bururako babesgarriak, forratuak/estuak nahiz ez.	ex 6506
22	Termometroak	Likidodun termometroak, zuzenean irakurtzekoak Barne daude termometro kliniko estandarrek, beira barnean merkurioa dutenak	ex 9025 11 20 ex 9025 11 80
		Termometro digitalak, edo termometro infragorriak, neurketa kopetan egitekoak	ex 9025 19 00
		Xaboiak eta eskuak garbitzeko prestakinak eta produktu organiko tentsioaktiboak (apain-mahaiko xaboa)	ex 3401 11 00 ex 3401 19 00
23	Eskuak garbitzeko xaboa	Xaboa eta produktu organiko tentsioaktiboak Xaboa beste forma batzuetan	ex 3401 20 10 ex 3401 20 90
		Agente organiko tentsioaktiboak (xaboiak bestelakoak) – Katioi-agenteak	ex 3402 12
		Produktu eta prestakin organiko tentsioaktiboak azala garbitzeko, likidoak edo krema gisakoak eta txikizkako salmentarako prestatuak, xaboidunak edo ez.	ex 3401 30 00
24	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak	ex 8479 89 97
25	Disoluzio hidroalkoholikoa litrotan	2207 10: desnaturalizatu gabe, alkohol etilikoa bolumenaren %80 edo gehiago denean.	ex 2207 10 00
		2207 20: desnaturalizatu, kontzentrazioa edozein dela ere	ex 2207 20 00
		2208 90: desnaturalizatu gabe, alkohol etilikoa bolumenaren %80 baino gutxiago denean	ex 2208 90 91
			ex 2208 90 99
26	Hidrogeno peroxidoa, %3an, litrotan. Hidrogeno peroxidoa, prestakin desinfektatzaileetan gaineratua gainazalak garbitzeko	Hidrogeno peroxidoa, urearekin solidotua edo ez	ex 2847 00 00
		Hidrogeno peroxidoa, ontziratu gabe	
		Eskuen desinfektatzailea	ex 3808 94
		Beste prestakin desinfektatzaile batzuk	
27	Larrialdiko garraiorako tresnak	Desgaitasuna duten pertsonentzako garraioa (gurpil-aulkiak)	ex 8713
		Ohatilak eta orgatxoak, ospitale edo klinika barnean pazienteak eramateko	ex 9402 90 00
28	ARN erazugailuak	ARN erazugailuak	9027 80
29	COVID-19aren probak egiteko kitak / Proba diagnostikoetan erabilitako tresnak eta gailuak	– Koronabirusaren proba diagnostikoa egiteko kitak – Diagnostikorako erreaktiboak, erreakzio immunologikoetan oinarrituak	ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 3002 90 90
		Diagnostikorako erreaktiboak, polimerasaren kate-erreakzioan (PCR) oinarrituak (azido nukleikoaren proba)	ex 3822 00 00
		In vitro diagnostikorako laborategi klinikoetan erabiltzen diren tresnak	ex 9027 80 80
		Laginak hartzeko kitak	ex 9018 90 ex 9027 80

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskripzioa	NC kodea
30	Isipiak	Guata, gaza, bendak, kotoi-txotxak eta antzeko artikulua	ex 3005 90 10
			ex 3005 90 99
31	Kanpainako ospitaleak jartzeko materiala	Ospitaleetako oheak	ex 9402 90 00
		Karpak/kanpadendak	ex 6306 22 00, ex 6306 29 00
		Karpak/plastikozko kanpadendak	ex 3926 90 97
32	Sendagaiak	<ul style="list-style-type: none"> – Hidrogeno peroxidoa, sendagai gisa aurkeztua Parazetamola – Hidroklorokina/klorokina – Lopinavir/Ritonavir - Remdesivir – Tocilizumab 	ex 3003 90 00
			ex 3004 90 00
			ex 2924 29 70
			ex 2933 49 90
			ex 3003 60 00
			ex 3004 60 00
			ex 2933 59 95
			ex 2934 10 00
ex 2934 99 60			
ex 3002 13 00			
ex 3002 14 00			
ex 3002 15 00			
33	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak	ex 8419 20 00 ex 8419 90 15
34	1-propanola (alkohol propiliko) eta 2-propanola (alkohol isopropiliko)	1-propanola (alkohol propiliko) eta 2-propanola (alkohol isopropiliko)	ex 2905 12 00
35	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, bestelako peroxidoak, zetona peroxidoak	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, bestelako peroxidoak, zetona peroxidoak	ex 2909
36	Azido formikoa	Azido formikoa (eta gatz eratorriak)	ex 2915 11 00 ex 2915 12 00
37	Azido salzilikoa	Azido salzilikoa eta gatz eratorriak	ex 2918 21 00
38	Behin erabiltzeko oihalak, 5603 partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen diren horietakoak	Behin erabiltzeko oihalak, 5603 partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen diren horietakoak	6307 90 92
39	Ehundu gabeko oihalak, izan nahiz ez inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo laminatuak	Ehundu gabeko oihalak, izan inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo laminatuak nahiz ez	ex 5603 11 10 a
			ex 5603 94 90
40	Erabilera kirurgikoa, medikoa edo higienikoa duten artikulua, txikizkako salmentakoak ez direnak	Paperezko ohe-estalkiak	ex 4818 90
41	Laborategiko beirateria, edo higienikoa edo farmazeutikoa	Laborategiko beirateria, edo higienikoa edo farmazeutikoa, kalibraturik eta graduaturik egon nahiz ez.	ex 7017 10 00
			ex 7017 20 00
			ex 7017 90 00

